

Iñaki Goikoetxeak Loiolako Inazioaren bizitza kontatzen du liburu honetan: haren bizitzako pasarte garrantzitsuenak, gaisoaldia, munduan barrena egindako bidaien berri... Jesusen Konpainia sortu zuenaren bizitzako hainbat eta hainbat zertzelada, azken finean. Lehen pertsonan idatzia dago, narrazioari hurbiltasun kutsua erantsiz.

Erligio klaseetan eta Katekesi saioetan erabiltzeaz gain, irakurle ororentzat ere aproposa dela uste dugu, bereziki zortzi urtetik gorakoentzat.

ELEA

ISBN 84-271-2391-4



9 788427 123915

8-10
urtetik
aurrera

Loiolako semea Iñaki Goikoetxea

28599

ELEA

Iñaki Goikoetxea Loiolako semea



LOIOLAKO
SEMEA

Loiolako
Semea
Iñaki Goikoetxea

ELEA

Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago,
legearen arabera, liburu honen kopia egitea,
osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere
(fotokopiak eta informatika barne)
Copyright-aren jabeen idatzizko baimenik gabe.
Baita publikoki aleen distribuzioa egitea ere.

Euskarazko Bildumen Arduraduna:
Mari Eli Ituarte

Bildumaren diseinua: Alvaro Sánchez

© Iñaki Goikoetxea
© 2001 Mensajero, S.A. - Sancho de Azpeitia, 2-
48014 Bilbao
Posta Zbk. 73 - 48080 Bilbao
E-mail: mensajero@mensajero.com
Web: <http://www.mensajero.com>


ISBN: 84-271-2391-4
Lege Gordailua: BI-1543-01
E.E.n inprimatua - Printed in E.C.

Inprimategia: Gestingraf, S.A.L. - C° de Ibarsusi, 3 48004 Bilbao

AURKIBIDEA


Loiola Dorretxea	9
Arevalo	13
Iruñean Zauritua	17
Arantzazun	27
Nabarreten	29
Mairuarekin	31
Montserraten	33
Manresan	35
Bartzelonan	41
Veneziara	43
Venezian	45
Jerusalemin	47
Txipren	51
Orain zer egin?	53
Bartzelonan berriro	55
Alkala de Henaresen	57
Salamankan	61
Parisen	67
Iñigo Dantzari	71
Bekatariak bihotz berritzen	73

Jesusen Lagundia	75
Montmartren	79
Azpeitian	81
Erroman	89
Erromara	91
Behartsuei laguntzen	93
Santa Marta	95
Juduak	97
Meza Berria	99
Jesusen Lagundia	105
Jesusen Lagundiko nagusi	107
Konstituzioak	109
Trentoko Kontzilia	111
Lutero	113
Pertsekuzioak	115
Bihotzez bat	117
Azken Urteak	119
Azken eguna	121
Loiolako Iñigoren Argazkia	123
Jesusen Lagundiari gainbegiratu bat	125
Jesusen lagundia eta Euskal Herria	129
Jesusen lagundia Euskal Herrian.....	131



LOIOLA DORRETXEA

Hamahiru senideren artean
txikiena nintzen.
1491. urtean jaioa.



Loiola

■ ñigo edo Inazio naiz,
Gipuzkoako Azpeitia herrian,
Loiolako dorretxean 1491. urtean jaioa.
Nire aita Beltran Loiolako zen,
eta nire ama Marina Likona ondarrutarra.

Gure etxean hamahiru neba-arreba ginen,
zortzi mutil eta bost neska.
Eta ni nintzen hamahiruetatik txikiena.

Txiki nintzela ama galdu nuen,
eta gure koinata Madalenak bete zuen
gure etxean amaren zuloa.

Hamabost urte nituela, nire etorkizunari
buruz pentsatzen jarri nintzen,
eta zera erabaki nuen:

Jaun handi, ahaltzu baten zerbitzuan
jarriko nintzela...

Eta hain zuzen Arevaloko Duke Joan Velzkez

Jaunak, gure aitari seme bat eskatu zion

Arevaloko jauregian gortesau izateko.


Eta gure aitak ni aukeratu ninduen
eginbide hori betetzeko.



AREVALO

(1506-1517)

Munduko huskerien atzetik
ibili nintzen.



Arevalo

H amaika urte egin nituen Arevaloko jauregian, eta aldi hartan munduko huskerien atzetik ibili nintzen.

Arma-jokoak batez ere maite nituen, eta izen handia irabazteko gogo bizia nuen.

Emakumeen gauzetan oso biburria nintzen, baita arma-borroka eta beste holakoetan ere.

Haragizko bekatuan zirikatua eta askotan menderatua izan nintzen.

Hala ere ez nuen inoren aurka gorrotorik gorde, eta Jainkoaren aurka ere ez nuen inoiz birarrik esan.

Fedeari eutsi banion ere, ez nintzen fedea eskatzen zuen legera bizi, eta bekatuengatik niri axola gutxi.

Urtean behin Arevalotik Loiolara joaten nintzen, eta behin 1515. urteko inauterietan gauzez eta asmo txarrez gaiztakeria handi bat egin nuen, eta ertzainen eskuetan ez erortzeko etxetik ihes egin beharrean aurkitu nintzen.

Azkenean estu eta larri txarkeria hura ezkutu ahal izan nuen.


1515. urtean, nik hogeita bost urte nituela, Fernando Katolikoa erregea hil zen, eta Zisneros kardinala jarri zen Gaztelan erregente bezala agintari.

Honek Arevaloko konde nire nagusia bere kargutik kendu eta erbestera baztertu zuen. Han zorrez beterik, penaz eta tristuraz hil zen.

Zartada handia izan zen hori niretzat, munduko handikeriak zein hutsalak diren ezagutzeko.

Ni orduan Naxerako Duke Marike de Lara zerbitzera pasatu nintzen...


Garai hartan Gaztelan "Los Comuneros" izeneko gerra nahaspila sortu zen, eta ni beste gipuzkoarrekin batera Iruñea defendatzera joan nintzen.



IRUÑEAN ZAURITA

(1521)

Iruñeko gaztelua defendatzen nengoela
bonbarda batek berna batean
jo ninduen.



Iruñean

Iruñeko gaztelua defendatzen nengoela, denek, biziak salbatzekotan, errenditzea onartzen zuten; argi ikusten baitzuten gu hain gutxi izanik ezin ginela defendatu.

Baina nik halako arrazoiak eman nizkion Herrera gaztelu-buruari, azkenean beste zaldun guztien aurka ere, defendatzea erabaki genuen.

Eta kanoiak jotzen hasteko eguna etorri zenean, nire arma-lagun batekin aitortu nintzen.

Eta kanoiak jo eta ke sei orduz jardun ondoren, bonbarda batek berna batean jo ninduen eta pilota berna bien erditik pasatu zelako bestea ere zauritua geratu zen.

Ni erorita ikusiz gaztelukoak berehala frantziar eta nafarren eskuetan errenditu ziren. Eta haiek gazteluko jabe egin ondoren, oso ondo hartu ninduten lagun bezala nirekin jokatu.

Lehen sendaketak bertan egin ondoren, be-
raiek ekarri ninduten mendiz mendi nire Loio-
lako etxera.

Baina ni osasunez oso gaizki aurkitzen nin-
tzen, eta inguru haietako sendagile guztiei dei
eginik, hauen iritzia zera izan zen: berna hezu-
rrak berriz ere askatu egin behar zirela, eta hezur
bakoitza bere lekuan jarri.

Eta nik sendaketa mingarri hauetan guztietan
ez nuen ahotik aienik bat ere atera, ezta minen
beste ezaugarririk agertu, ukabilak gogor estu-
tzea baino.

Baina ni osasunez geroago eta gaizkiagora
nindoan, ezer ezin jenez, eta heriotzaren aurretik
gertatzen diren beste ezaugarriekin.

Eta San Joan egunean, ekainak 24, sendagile-
ek ni sendatzeko konfiantza gutxi zutenez gero,
aitortzeko aholkua eman zidaten.

Eta elizakoak hartuta San Pedro bezperan,
ekainak 28, sendagileek esan zuten gau erdira-
ko ez banuen hoberakorik egiten, nireak egin
zuela.

Nik aspalditik San Pedrori debozio handia
nion, eta Gure Jaunak hala nahirik, gauerdi har-
tan hobera egiten hasi nintzen.

Eta hain laster hobera egin ere, handik gutxi-
ra heriotzako arriskutik alde egin nuela uste iza-
teraino.

Baina hezurak bata besteaz lotu zirenean, be-
laun azpian hezur bat bestearen gainean geratu
zitzaidan, hanka hori laburrago eginez; eta hori
gauza itsusia zen.

Eta nik hori ezin eramanez, hezur hura ea
moztu zitekeen galdetu nien zirujanoei.

Eta haiek baietz erantzun zidaten: moztu, bai,
moztu zitekeela, baina minak ordura arte sufri-
tutako guztiak baino biziagoak izango zirela.

Eta nik martiritza hura nire borondatez jasa-
tea erabaki nuen.

Baina hezurrea moztu ondoren zango hura
bestea baino laburrago geratu zitzaidan, eta
gantzuki eta burdinezko tresnekin eten gabe lu-
zatzuz egun askotako martiritza jasan nuen.

Baina Jaunak astiro-astiro osasuna eman zi-
dan, eta laster hain ongi aurkitzen nintzen ezen
sendatu nintzela esan zitekeen.

Baina zango baten gainean ezin egonik, ohean
egotera beharturik nengoen.

Eta zaldunen liburu zuztarbakoak irakurtzeko zaletasun handia nuenez, oasunaren aldetik ongi aurkitu nintzenean, halako batzuk eskatu nituen denbora-pasa.

Baina Loiolako gure etxean holakorik bat ere ez zen aurkitzen.

Eta holakoen ordeztu "Vita Christi" edo "Kris-toren bizitza", eta erdarazko "Santuen bizitzak" eman zizkidaten.

Eta liburu horiek behin eta berriz irakurriz, han idatzitakoari gustu pixka bat hartzen hasi nintzen.

Nire anaia zaharrena ikaratu egiten zen, esanez: bera ez zela honelako minik inolaz ere sufritzen ausartuko... baina nik hori betiko kementaz eraman nuen.

Eta han gainean zeuden haragi eta hezurra moztu ondoren, zango hura laburragoa geratu ez zedin sendabideak hartu nituen, gantzualdi asko emanez, eta etengabe burdinezko tresnekin luzatuz egun askotako martiritza eman zidaten.

Baina gure Jaunak astiro-astiro osasuna eman zidan, eta laster hain ongi aurkitzen nintzen ezen beste gainontzekoan sendatua nengo; baina zango baten gainean ezin nintzen ondo finkatu eta honela ohean egotera beharturik nengo.

Eta santuen bizitzei buruzko liburuak irakurtzeari ekin nion.

Baina irakurri ondoren, batzuetan irakurritako gauzak pentsatzen geratzen nintzen, eta bestetan lehenago ohi nituen mundukoak gogoratzen.

Eta burura etortzen zitzaizkidan beste gauza hutsal askoren artean, batek zeukan nire bihotza osoro hartua, hartan pentsatzen bi, hiru eta lau ordu, ohartu gabe, liluraturik egoten nintzen, alegia:

Andre baten zerbitzuan zer-nolako gauza harriarriak egingo nituen asmatzen, eta hura zegoen lurraldera joateko zer bide hartu beharko nuen, eta zer-nolako izen politak esango nizkion, haren zerbitzuan zer-nolako arma-egintza harriarriak egingo nituen...

Eta pentsamendu hauekin hain liluraturik nengoenez, zein lortu ezinezko gauza zen ez nuen ikusten; Andre hura, bada, ez zen edozein giza-mailakoa, ez kondesa, ez dukesa, hauek baino goragoko mailakoa zen.

Hala ere Jaunak pentsamendu hauen ondoren, beste batzuk ekartzen zizkidan irakurritako gauzetatik, sortuak gogora ekarriz.

Baina pentsamendu denak ez ziren berdinak: mundukoetan pentsatzen nuenean, atsegin handia hartzen nuen, baina nekaturik uzten nitue-

nean, lehor eta pozik gabe aurkitzen nintzen; eta santuek egindako penitentziak neuk ere egin behar nituela gogoratzean, pentsamendu haietan nengoela bakarrik ez nintzen pozten, baita utzi ondoren ere pozik eta alai gelditzen nintzen.

Baina nik desberdintasun hau ez nuen hartzen, halako batean nire begiak ireki ziren arte.

Orduan halako desberdintasunez harritzen hasi nintzen: pentsamendu batzuetatik triste gelditzen nintzela, eta besteetatik alai eta pozik hausnartuz.

Eta pixkanaka elkarren etsai ziren bi espirituen desberdintasuna ezagutzera etorri nintzen, alegia: bata deabruarena zela, eta bestea Jainkoarena.

Eta gure Jaunaren eta santuen bizitzak irakurriz, pentsatzen jartzen nintzen: eta zer litzateke Frantzisko Santuak egin zuena nik ere egingo banu?

Eta Santo Domingok egin zuen beste hori?

Eta beti gauza zailak eta astunak jartzen ninkion aurrean nire buruari; eta erraz burutuko nituela uste nuen.

Eta honela argiturik, nire bekatuengatik penitentzia egiteko nolako beharra nuen pentsatzen jarri nintzen.

Eta orduan santuek egindako penitentziak neuk ere egiteko gogoia etortzen zitzaidan.

Eta sendatu ondoren gehien nahi nuena Jerusalemera joatea zen, zigor eta barau ikaragarriak eginez.

Eta gogo santu hauekin, lehengo munduko pentsamenduak ahazten joan zitzaizkidan, eta izan nuen ikustaldi batekin nigan sendotu zen.

Eta honela izan zen:

Behin batean gauzez esnaturik nengoela Andre Mariaren irudi bat Jesus Haurrarekin garbi-garbi ikusi nuen. Eta ikustaldi honekin aski luzaro neurritz gaineko poza hartu nuen. Eta joandako bizitzaz hain nazkaturik geratu nintzen, haragizko gauzez batez ere, lehen ariman pintaturik nituen irudipen guztiak handik kendu zitzaizkidalala, uste nuen.

Eta harrezkero ez diet inoiz ere haragizko gauzei leku txikienik ere eman.

Nire anaia eta etxeokak nire ariman egin zen aldaketa ezagutzera etorri ziren. Eta denbora zati bat Kristoren eta santuen bizitzak irakurtzen ematen nuen, eta beste zati bat otoitz egiten.

Baina pozik handiena zerura eta izarrei begiratzeak ematen zidan, eta hori askotan eta luzaro egiten nuen. Eta honekin Gure Jauna zerbitzeko indar handia sentitzen nuen.


Eta nire burua nahiko indartsu aurkitu nuen, Jerusalemera joateko asmoa hartu nuen.

Eta nire anaiari esan nion:

Jauna, Naxerako dukeak sendatua naizela badaki. Egoki litzateke ni Nabarretera joatea, han baitzegoen orduan dukea.

Anaiak gela batera eraman ninduen, eta arren eta arren nire etorkizuna ez hondatzeko hasi zitzaidan eskatzen, esanez: Zer itxaropen handia zuen jendeak nigan jarrita, eta zer gauza handietarako balio nuen...

Baina nik nire asmoaz jarraitu nuen.




Arantzazun

Eta mando baten gainean gure etxeko bi morroi lagun nituela, Oñatirako bidean jarri nintzen nire anaia Pedro apaizarekin.

Eta honi bidean Arantzazuko Andre Mariaren elizan gau-beila egiteko gogoia sartu nion.

Eta han nire biderako indar berriak lortzeko otoitz egin nuen, eta nire arimak onura handia hartu zuen.



Nabarreten


Eta nire anaia Oñatin arreba baten etxean utzita, ni bi morroiekin Errioxako Nabarrete-ra abiatu nintzen.

Eta dukearen etxean diru batzuk zor zizkidatela gogoraturik, haiek jasotzea ondo iruditu zitzaidan, eta jaso nituen.

Eta zorretan nengoela uste nuen pertsona batzuen artean banatzeko agindu nuen.

Eta beste zati bat gaizki apaindurik zegoen Andre Mariaren irudi bat konpondu eta apaintzeko eman nuen.

Eta nirekin zetozen bi morroiei agur eginik, ni Montserrat aldera abiatu nintzen.



Mairuarekin

Nire bidean nindoala, Zaragoza aldean, mairu bat elkartu zitzaidan bidean mando gainean. Eta biok hizketan gindoazela, Andre Maria aipatzera etorri ginen, eta mairuak esaten zuen:


Semea izan eta birjina gelditzea, hori ezin zuela sinetsi. Eta horretarako naturazko arrazoiak ematen zituen.

Eta mairua, aurrea hartuz, begipetik galdu nuen. Eta kezkaz bete nintzen Andra Mariaren izen ona garbitu beharrean aurkitzen nintzela pentsatuz.

Eta gogoak mairuaren atzetik joatea ematen zidan, eta esan zuenagatik puñal-sastakadaz jostea.

Eta zer egin ezin asmatuz, zera erabaki nuen: Nire mandoari berak nahi zuen bidetik joaten utziko nion, eta bidegurutzean nire mandoak mairuak hartu zuen bidea hartzen bazuen, puñalkadaz josiko nuen.

Jaunari eskerrak, mairua joan zen bidea zabalagoa izan arren, nire mandoak beste bide estuagoa hartu zuen.



Montserratan

Eta Montserrat baino lehenago dagoen herri handi batera heldu nintzenean, sakuak egiteko erabiltzen den kalamuzko oihala erosi, eta harekin oinetarainoko jantzi luze bat egiteko agindu nuen.

Baita gero, bordoi eta kuiatxo bat, erromesen makila eta kalabazatxoa, eta abarketa batzuk ere erosi nituen; eta bat bakarra jantzi nuen, zango bat oraindik bendeekin lotuta neukalako, eta ez guztiz sendatua.


Eta hauek guztiak zaldi-gainean ipinirik, Montserrateko bidean jarri nintzen, Jainkoaren maitasunez burutuko nituen egite harrigarrietan, beti bezala, pentsatzen.

Eta Montserratera heldu nintzenean, otoitz egin ondoren, konfessorearekin elkar harturik bekatuak paperean idatzita, bizitza osoko aitortza egin nuen, eta aitortzak hiru egun iraun zuen.

Eta konfesorea eta biok honetan gelditu ginen: mandoaren bila norbait etorriko zela, eta ezpata eta puñala elizan Andre Mariaren aldarean eskegiko zirela.

Eta martxoko Andre Mari bezperan, hilak 24, 1522. urtean, ahalik eta isilenean behartsu baten-gana joan eta nire jantzi guztiak pobre hari eman nizekion, eta ni hain maite nuen soinekoz jantzi nintzen.

Gero Andre Mariaren aldare aurrera belauniko jartzera joan nintzen. Eta batzuetan belauniko, bestetan zutik, erromesen bordoia eskuan nuela, gau osoa eman nuen.



Manresan

Eta eguna argitu zuenean ezagutua izan ez nendin, Montserratek alde egin nuen, eta Manresa deritzan herri batera baztertu nintzen, egun batzuetan ospitalen batean egoteko erabakia hartua bainean.

Eta Manresan egunero limosna eskatzen nuen, eta ez nuen haragirik jaten ezta ardorik edaten, emanda ere.

Baina igandeetan ez nuen baraurik egiten, eta ardo pitin bat ere edaten nuen, ematen bazidaten.

Eta ilea apaintzen lehen oso txukuna izan nintzelako —nik ile ederra nuen— orraztu eta moztu gabe uztea erabaki nuen.

Eta arrazoi beragatik oinetako eta eskuetako azazkalak ere hazten utzi nituen.

Eta pentsamendu hau etortzen zitzaidan burura: Nola jasan ahal izango duk bizitza latz hau hi biziko haizen hirurogeita hamar urte-tan?

Baina nik etsaiarena zela oharturik, indar handiz erantzuten nion:

"Maltzur hori! Hik urte beteko bizitza ere eman ahal diezadakek?" Eta honela tentaldi hura garaitu, eta baketu nintzen.

Batzuetan ez nuen gozorik aurkitzen, ez erre-zatzean, ezta meza entzutean, ezta egiten nituen beste otoitzetan ere.

Eta beste batzuetan, ostera, hain bat-batean pozik aurkitzen nintzen, tristura eta lehorraldi hura kendu zitzaidala, ematen zuen.

Nire ariman gora-behera handiak sentitzen hasi nintzen.

Eta izaturik, neure buruari honela hasi nintzen galdetzen: "Zer da orain hasi dudan bizitza berri hau?"

Eta nik, neure ohiturari jarraituz, igandero aitortzen eta jaunartzen irauten nuen.

Baina nire barrengo kezkak lan handia ematen hasi zitzaizkidan.

Montserrateko aitortza ardura handiz, dena idatzita egin banuen ere, gauza batzuk ez nituela aitortu uste nuen.

Eta hura aitortuta ere ez nintzen bakean geratzen.

Kezka hauek kalte handia egiten zidaten, baina ezin nituen nigandik aldendu.

Garai honetan dominikar fraileek utzi zidaten gelatxo batean bizi nintzen, eta neure zazpi ordu otoitz egiten jarraitzen nuen, baita gauerdian jaitzen eta beste erre-zuetan ere.

Baina hauetan guztietan ez nuen barrengo kezkentzat sendabiderik aurkitzen.

Eta oinaze hau hilabete askotan jasan nuen.

Eta behin, nekearen nekez, otoitzaren beroan Jainkoari deiadarka hasi nintzen:

"Lagun iezadazu, Jauna! Erakuts iezadazu non aurkituko dudan bakea! Bada, txakurtxo baten atzetik joan behar banu ere sendabideren bat aurkitzeko, joango naiz."

Eta tentaldiak etortzen zitzaizkidan nire gelak zuen zulo batetik behera nire burua botatzeko.

Baina burua botatzea bekatu zela jakinik, deiadarka esaten nuen:

"Jauna!, ez dut zu irainduko zaituen ezertxo ere egingo!"

Eta orduan santu baten bizitza etorri zitzaidan gogora, nola hau Jaunagandik asko nahi

zuen gauza bat lortu arte egun askotan ezer jan gabe egon zen.

Eta nik berdin egitea pentsatu nuen.

Eta aste osoa ezertxo ere ahora eraman gabe iraun nuen, nire eguneroko otoitzaldiak utzi gabe.

Hurrengo igandea etorri zenean, konfesoareari aste hartan ez nuela ezer jan esan nion. Eta honek barau hura hausteko agindu zidan, eta agindutakoa egin nuen, eta egun hartan eta bestean kezkarik gabe aurkitu nintzen.

Eta honekin Jaunaren laguntzaz lotatik bezala esnatu nintzen. Eta ziur naiz Jaunak bere erruki handian onez atera ninduela.

Eta nire zazpi orduko otoitzez gainera, nire bila zetozen arimei espirituko gauzetan laguntzen nien, eta libre nituen eguneko zatirik gehienak, Jainkoaren gauzetan pentsatzen ematen nituen.

Garai honetan Jainkoak nirekin eskolako maisua haur batekin bezala jokatzan zuen.

Ia urtebete egon nintzen Manresan, eta arimetan egiten nuen fruitua ikusiz, lehengo gehiekeriak utzi nituen, eta azkazalak eta ilea moztu egiten nituen.

Askotan eta luzaroan, otoitzean nengoela, barruko begiekin Kristoren gizatasuna eta irudia ikusten nituen.

Eta ikusitako gauza hauek fedean hain sendo jarri ninduten, sarritan neure baitan pentsatzeraino:

Fedeko gauza hauek irakasten dituen Liburu Santurik ez balego ere, ni haien alde hiltzeko prest egongo nintzateke, ikusi dudanagatik bakarrik.

Banindoan behin Manresatik bi kilometrora edo zegoen San Pablo elizara, eta errezueta nindoela, aurpegia pixka bat Kardoner ibaira begira eseri nintzen. Eta eserita nengoela adimenaren begiak zabaltzen hasi zitzaizkidan, ez ikuskariren bat ikusten nuelako, gauza asko ulertuz eta ezagutuz baizik.


Eta hau argi handiz, gauza guztiak berriak zirela iruditzeraino.

Eta nire adimena hain argitua gelditu zenez, beste gizon bat nintzela uste nuen.

Eta orduan ulertu nituen gauzak asko izanik —ezin ditut banaka adierazi— adimenean argi handi bat hartu nuela pentsatu nuen.

Eta argi hori hain bizia izan zen, neure bizitza guztian zehar Jainkoagandik hartutako gauza guztiak bildu, eta gero ikasitako gauza guztiak batera jarrita ere, ez dut uste hainbeste lortu dudanik.

Eta honek aski luzaro iraun zuen, eta han ondoan zegoen gurutze batera eskerrak emateko belaunikatzera joan nintzen.



Bartzelonan

Eta 1523. urtearen hasieran Bartzelonarantz abiatu nintzen, han Jerusalemera joateko itsasontzia hartzeko.


Eta Jainkoagan bakarrik nire esperantza jarrita, lagunik eta janaririk gabe itsasoratu nahi nuen. Baina konfesoreak biderako behar nuena eramateko agindu zidan.

Azkenean limosna eskatuz biderako behar zen "bizkotxo" lortu ondoren itsasoratu egin nintzen.

Baina hondartzan nengoela atez ate eskean ibilita hartutako bost edo sei txanpon nituela oharturik, hondartza ondoko eserleku baten gainean utzi nituen.

Eta Bartzelonan hogei egun baino pixka bat gehixeago egin ondoren itsasoratu nintzen.

Eta Bartzelonatik Gaetara bost egunen barruan heldu ginen.



Veneziara

Eta Italian izurritearen beldur ziren, baina ni ontzitik irten bezain laster Erromarantz abiatu nintzen. Eta Erroman nirekin hitz egiten zuten guztiak, Jerusalemera joateko dirua kentzen hasi ziren.


Baina nik Jerusalemera joateko bideren bat aurkituko nuela garbi ikusten nuen.

Eta Aita Santuaren bedeinkapena harturik, Venezia aldera irten nintzen, Kristo piztuta pazkotik zortzi egunera.

Veneziako bide honetan izurriteagatik udalaxeek, hirietara inor ez sartzeko udaltzainak jarri ta zeuzkaten eta nik elizpeetan egiten nuen lo.

Eta egun batean bidez nindoala Kristo agertu zitzaidan, eta ikuskari honek indar handia eman zidan.

Eta Veneziara heldu nintzenean, udaltzainak ontzira etorri ziren han ginen guztiak banan-banan aztertzeko, eta niri bakarrik utzi zidaten bakkean pasatzen.



Venezian

Venezian esketik bizi nintzen, eta San Markos enparantzan egiten nuen lo.

Egun batean euskaldun aberats batekin aurkitu nintzen eta honek zer egiten nuen eta nora joan nahi nuen galdetu zidan. Eta nire asmoa jakin zuenean bere etxera bazkaltzera eraman ninduen, eta egun batzuetan gero berekin eduki nahi izan ninduen, Jerusalemgo bidaiaria prestatu arte.


Gizon hura bere etxearekin nitaz zaletu zen eta bere etxean eduki nahi ninduen.

Eta beronek Veneziako Dux-engana eraman ninduen harekin hitz egiteko.

Eta Dux-ek Txiprera zihoan gobernadorearen ontzian niri toki bat egiteko agindu zuen.

Eta ontzia itsasoratzekoan nik purga bat hartu nuen, baina ni ontziratu nintzen eta ahotik hainbeste bota nuen, oso arinduta, guztiz sendatzen hasi nintzen.

Garai honetan Gure Jauna sarri agertzen zitzaidan, eta honek poz handia ematen zidan.



Jerusalemen

Eta Jappako portura heltzerakoan, astogainetan gindoazela, Jerusalemera heldu baino lau kilometro lehenago, espainiar batek erromes guztiei esan zien: handik gutxira Hiri Santua, Jerusalem ikus zitekeen lekura helduko ginenez, egoki izango zela bakoitzak bere arima prestatzea, eta horretarako isilik joatea.

Eta hiria ikusten zen lekura heldu baino lehen-
txeago, asto gainetatik jaitsi ginen, gurutzearekin gure zain zeuden fraideak ikusi genituelako.

Eta Jerusalem hiria ikustean nik poz handia hartu nuen, eta beste guztiei ere berdin gertatu zitzaien.

Eta debozio berdina sentitu nuen nik beti Toki Santuak ikustean.

Eta Sion mendian fraideak zuten komentuan jan eta lo egiten genuen.

Beste egunean Olibete mendia eta Jetsemani-ko baratza ikuskatu ondoren, asto gaintan Bele-nera joan ginen.

Eta nire erabaki sendoa Jerusalemen betiko geratzea zen, Toki Santuak beti ikuskatzen. Eta asmo hau fraideen Goardian Abari agertu nion. Goardianak erantzun zidan, ez zuela ikusten no-la ni han gera nintekeen. Komentua hain behar gorrian zegoen, bertako fraideak ezin mantendu-
duz, batzuk erromesekin Europara bidaltzeko erabakia hartua zuela.

Nik erantzun nion ez nuela etxe hartako bes-terik nahi, noizean behin aitortzera etortzen ba-nintz nire aitortza entzutea baizik.

Eta erromesak Europara itzuli behar ziren bezperan niri dei egin zidaten, eta Aita Probin-tzialak hitz goxoz esan zidan: Toki Santu haietan geratzeko nik nuen asmo onaren berri jakin zue-la, baina beste erromesei gertatua ikusirik, ni to-ki hartan geratzea ez zela egoki; beste erromes

askok ere nire gogo hori izan zutela, eta halako bat preso hartua izan zela eta bestea hila: Eta fraideak gero diruz askatzeko eginbeharrean aurkitzen zirela.


Nik erantzun nion: nire erabakia oso sendo hartua nuela, eta, bekatupean agintzen ez bazu-ten ez nuela erabaki hori bete gabe utziko.

Aita Probintzialak erantzun zidan: Erromako Aita Santuagandik aginpidea hartua zuela agin-dutakoa egin nahi ez zutenak eskomikatzeko.

Horregatik ni hurrengo egunean joateko pres-ta nendila.

Eta hurrengo egunean Jerusalemdik irten gi-nen.

Hogei egun egin genituen Lur Santuan barru-ko gozotasun ezin aditzera eman ejioaz gozatuz.




Txipren

Txiprera heldu ginenean hiru-lau ontzi zeuden Veneziarakoak: bat turkiarrena, bestea ontzi txiki bat zen, eta hirugarrena Veneziako gizon aberats batena.

Ontzi honetako patriolari erromes batzuk ni dohain eraman nazala eskatu zioten. Baina hark nik dirurik ez nuela jakin zuenean, ez zuen nahi izan. Eta nik santu fama nuela jakin zuenean, patriiak erantzun zien: Ni halako santua baintz ur-gainean ibiliz itsasoa igaro nezala. Eta ontzi txikiko patroia ni eraman nendin oso erraz konbentzitu zuten.

Hiru ontziak itsasoratu ziren, baina arratsaldean ekaitza etorri zitzaigun gainera eta ontzi nagusia Txipreko uhartearen bazterra jo eta galdu egin zen; jendea bakarrik atera zen onik. Turkiarren ontzia bertako guztiekin galdu egin zen. Gure ontzia, arrisku handiak eraman bazituen ere, azkenean Italiako Puglia lehorrean porturatu zen.



Orain zer egin?

Jerusalemen egotea ez zela Jainkoaren nahia ezagutu nuenean, nire barruan jarri nintzen pentsatzen: Eta orain zer egin?


Eta azkenean, arimek laguntzeko eskola ikas-terera makurtzen nintzen eta horretarako Bartzelonara joatea erabaki nuen.

Eta Veneziatik Genovara joateko Italiako iparralde osoa zeharkatu behar izan nuen, bostehun kilometro edo oinez eginez.

Gerra zen lurralde hartan, eta ni neure bidean aurrera nindoala dorre batean zeuden bi soldaduk ikusi ninduten eta ni atxilotzera jaitsi ziren.

Eta kapitainaren aurrera eramanez, honek beste gauza askoren artean nongoa nintzen galdetu zidan, eta gipuzkoarra nintzela jakin zue-
nean esan zidan: Ni ere hango ingurukoa naiz;
Baiona ondokoa zela uste dut.

Eta gero esan zuen: "Eramazue eta eman afal-
tzeko, eta ondo hartu".



Bartzelonan berriro

Eta Genovan Errodrigo Portuondo zeritzan Mundakako bizkaitar bat aurkitu nuen, eta honek Bartzelonara zihoan ontzi batean sartu ninduen.


Eta Bartzelonara heldurik ikasteko nuen gogoia nire ongile Andere Isabel Roseri azaldu nion, baita gramatika irakasten zuen Ardebol maisuari ere. Eta biei ongi iruditu zitzairen.

Maisuak dohain, hutsean, irakasteko eskaintza egin zidan, eta Isabel Andereak bizitzeko behar nuena emango.

Baina ikasten hasi nintzenean espirituko gozotasun handiak etortzen zitzaizkidan; eta otoitz

egiten jartzen nintzenean ez. Eta honela hura tentaldia zela ezagutzera etorri nintzen. Eta maisuari esan nion: nik hitz ematen dizut bi urte hauetan ez dudala inolaz ere eskolara huts egingo, Bartzelonan ni mantentzeko ogia eta ura aurkitu ahal dudan bitartean.

Eta agintzari hau hain benetan egin nuelako, ez nuen gehiago halako tentaldirik izan.



Alkala de Henaresen

Bi urte ikasten jardun ondoren nire maisuak filosofia ikasteko gai nintzela esan zidan, eta horretarako Alkalara joateko. Eta, bakar-bakarrak, Alkalarako bidean jarri nintzen.

Alkalara iritsi nintzenean esketik eta limosnaz bizitzen hasi nintzen, eta hango batzuk nire lepotik barre egiten hasi ziren, esanez: osasun oneko izanik esketik nola bizi nintzen. Handik pasatu zen Antezana ospitaleko arduraduna eta honekin mindurik niri dei egin, eta ospitalera eraman ninduen, eta han gela bat eta behar nuen guztia eman zidan.

Alkalara heldu bezain laster Egia-ko Diego Jauna ezagutu nuen. Nafarroan Lizarra hirikoa zen. Hau Alkalan inprimatzaile zen Migel bere anaiaren etxean bizi zen, eta bizitzeko behar zuena ugari zuen. Bi anaia hauek beren limosnarekin pobreak mantentzen laguntzen zidaten.

Alkalan nengoela gogo jardunak ematen nituen, eta kristau doktrina irakasten. Eta pertsona asko heldu zen espirituko gauzen berri eta gozotasuna hartzera.

Eta egun batean badator udaltzain bat, eta esan zidan: zatoz piska bat nirekin, eta gartzelan uzten nau, esanez: ez irten hemendik beste zer-bait agindu arte.

Ez nengoen ni gartzelan lotuta, eta asko etortzen ziren ni ikustera, eta aske nengoenean bezala doktrina irakatsi eta gogo jardunak ematen nituen.


Ez nuen abokaturik hartu nahi izan, esanez: "Jainkoaren maitasunagatik sartu naiz hemen, eta berak aterako nau, hala nahi badu."

Ni gartzelan sartutako egunetik atera ninduten egunera arte berrogeita bi egun igaro ziren.

Azkenez notario bat etorri zen epaia irakurtzera, aginduz: fedeko gauzei buruz, ez jakina nintzelako, ez hitzik egiteko lau urte gehiago ikasi arte.

Epai honekin zer egingo zalantzan egon nintzen, eta azkenean Toledoko gotzainburu Fonse-


ka Jaunarengana joatea erabaki nuen, eta honi gertatzen zitzaidan guztia kontatu nion, eta honnek nik Salamankara aldatzea nahi nuela jakinik, esan zidan berak ere Salamankan bazituela lagunak, baita ikasle pobreentzat ikastetxe bat ere, eta dena eskaini zidan.



SALAMANKAN

(1527)

*Ez da Salamankan nahiko katerik,
nik Jainkoaren maitasunagatik,
gehiago eraman nahi ez nukeenik.*



Salamankan

Salamankan nengoela dominikar fraide batekin aitortzen nintzen, eta egun batean honek esan zidan: Etxeko fraideek zurekin hitz egin nahi dute, baina jakin behar duzu zugandik gauza asko jakin nahi izango dituztela.

Nik ordurako Salamankan lagun batzuk hartuak nituen arimen onerako lan egiteko: Kalisto, Kazeres, Arteaga eta Joantxo frantziarra...

Igandean joan nintzen bazkaltzera haien komentura Kalistorekin, eta etxeko nagusia hasi zen goxoro esaten:

Nola berri onak zituzten gure bizitza eta ohi-
turei buruz, eta nola apostoluen antzera ari gi-
nen predikatzen...

Eta gauza hauek zehatzago jakiteaz postuko
liratekeela.

Eta ordura arte zer ikasi genuen galdetzen ha-
si zen.

Eta nik erantzun nion gure artean gehien ika-
sia neu nintzela, baina nik ere zein gutxi, eta zein
oinarri gutxi.

“Orduan, zer predikatzen duzue?” galdetu zi-
gun.

“Guz ez dugu predikatzen, esan nion; gu ba-
tzuekin, familian bezala, Jainkoaren gauzei bu-
ruz mintzatzen gara, bazkal ondoan bezala, dei
egiten digutenekin.

Baina, dio fraideak: Jainkoaren zer gauzari
buruz mintzatzen zarete? Hori da jakin nahi du-
guna.

Gu mintzatzen gara —esan nion— orain onbi-
de bat, eta hau goralduz; eta gero bekatu bat, eta
hau gogor hartuz.”

“Ez zarete ikasiak —dio fraideak— eta onbide
eta bekatuei buruz ezin da inor mintzatu, bi era
hauetako batean baizik: edo ikasia delako, edo
Espiritu Santuagandik hartua duelako. Zuek ez
zarete ikasiak: beraz, Espiritu Santuagandik har-
tua beharko duzue.”

Niri arrazoibide hura ez zitzaidan gustatu,
eta pixka bat isilik egon ondoren, ez zela egoki
gauza hauei buruz gehiago mintzatzerik, era-
baki nuen.

Baina fraideak berriz ere:

“Orain mundua engainatzen ari dira. Erasmo-
ren eta beste askoren gezurrak direlarik, zuk esa-
ten duzuna ez al diguzu adierazi nahi?”

Eta nik erantzun nion: “Aita, nik ez dut esan-
dako baino gehiagorik esango, horretara behartu
nazaketen nire nagusien aurrean ez bada.”

Eta gartzelara eraman gintuzten, eta biok kate
batean lotu estu-estuan, bakoitza bere oinetik.

Eta batek zerbait egin behar bazuen, besteak
lagundu behar izaten zion. Eta gau osoa begirik
itxi gabe igaro genuen.

Eta gartzelara nirekin mintzatzera jende asko
etortzen zen. Eta batek galdetu zidan, ea nola
aurkitzen nintzen espetxean.

Eta nik erantzun nion:

“Ez da Salamankan hainbeste gartzela eta ka-
terik, nik Jainkoaren maitasunagatik gehiago
nahi ez nukeenik.”


Eta hogeita bi egun barru epaia entzutera dei
egin ziguten, eta epaiak esaten zuen:

Gure bizitzan eta doktrinan ez zela oker bat
ere aurkitzen, baina ez erabakitzeke: hau bekatu
astuna da eta beste hori arina.

Nik esan nien epaiak agintzen zuena beteko genuela, baina ez genuela onartuko ezertan kondenatu gabe ahoa ixten zigutelako laguntza ukatzea.

Eta berehala espetxetik atereak izan ginen.

Eta hamabost edo hogeit hamar egun barru, astotxo batean liburuak harturik Bartzelonarako bidean jarri nintzen, handik Parisera joateko.



Parisen

Eta Parisera otsailaren bigarren egunean heldu nintzen, eta espainiar batzuekin etxe batean jarri nintzen bizitzen, eta humanidadeak ikastera Montaigu ikastetxera joaten nintzen.

Parisera heldu ondoren, Bartzelonako diru-txartel bategatik merkatari batek hogeita bost ezkutu eman zizkidan, eta nik hauek espainiar bati eman nizkion gordetzeko, baina honek denbora gutxian dena gastatu zuen eta ez zuen gero niri nondik ordaindu.

Eta garizuma igarotakoan ez nuen bat ere dirurik eta horregatik bizi nintzen etxea utzi beharrean aurkitu nintzen eta esketik bizi.

Eta Saint Jaques ospitalean hartu ninduten. Baina ospitale hau Montaigu ikastetxetik urruti samar egiten zen, ordu erdi edo.

Eta atea irekita aurkitzeko "Ave Mariak" jo aurretik etorri behar zen, eta eguna argituta irten, eta honela goizeko lehen eskola, eta arratsaldeko azkena galdu egiten nituen.

Mantentzeko limosna eskatu beharra ere beste eragozpen bat zen.

Eta eskean ibilita eskolan gutxi aurreratzen nuela ikusita, zer egingo nuen pentsatzen hasi nintzen.

Eta irtenbiderik ezin aurkituz, fraide batek esan zidan, hobe nuela urtero Flandes aldera joan, eta han bi hilabete edo gutxiago galdu gero urte osoan estudiatu ahal izateko.

Eta aholku honi jarraituz, Flandestik urtero bizitzeko behar nuena ekartzen nuen.

Eta behin Ingalaterraraino ere joan nintzen, eta beste urteetan baino limosna gehiago ekarri nuen.

Diruak hondatu zizkidan espainiarra Rouango portuan gaitz batek hartu zuela jakin nuen, eta hura ikustera eta laguntzera joateko gogo a etorri zitzaidan; eta Paristik Rouanera diren 28 lekua(155 kilometro) oinez eta oinutsik eta ezer jan gabe ibiltzeko gogo a etortzen zitzaidan.

Hirugarren egunean Rouanera iritsi nintzen, eta denbora honetan guztian ezer jan eta edan gabe iraun nuen.

Gaixoari poza eman nion, eta Espainiara joateko ontzi batean sartzen lagundu nion.

Eta ohitura nuenez, gogo jardunak hiruri eman nizkien: Toledoko Peraltari, Kastro batxilerrari, eta Helduaingo Amador euskaldunari.

Hauek aldaketa handiak egin zituzten, eta zeukaten guztia behartsuei eman eta limosna eskatzen hasi ziren.

Aldaketa honek unibertsitatean zalapart handia egin zuen oso ezagunak zirelako eta zurrumurru handiak jaso ziren nire aurka, espainiarren artean batez ere.


Eta gure irakasle Gouveiak bere ikastetxean zegoen Amador nik burutik eraginda jarri nuela sinetsiz, "salle" izeneko zigorra niri ematea erabaki zuen.

Hori jakin nuenean, ni zuzenean ikastetxera joan nintzen, eta ni sartuz batera ateak itxi zituzten.

Kanpaia jo eta irakasle eta ikasleak aretoan bildu ziren, sartailuak eskuetan, niri zigorra emateko asmoz.

Gouveia Doktorea bere gelan zegoen, eta bere aurrean azalduz, nik nire aurka zabalduetako gezur guztietatik neure burua garbitu nuen.

Orduan Gouveia Doktoreak, ni eskutik hartuz, irakasle-ikasleak bildurik zeuden lekura eramanez ninduen, eta nire aurrean belaunikaturik, barkamena eskatu zidan.



Iñigo Dantzari

Behin batean gaixo bat ikustera joan nintzen eta oso goibel eta triste aurkitu nuen.

Orduan nik maitasun handiz galdetu nion zér egin nezakeen tristura hori kentzeko. Eta berak erantzun zidan bere gaitzak ez zuela sendabiderik.

Baina nik berriz ere erregutu nion ondo begirazteko nola eta zerk poztuko zuen jakiteko.


Eta hark pentsatu ondoren, gaixo zegoenez, zentzugabeko zerbait eskatu zidan, alegia: Bizkaian egiten den bezala nik kantatu eta dantzatzea.

Eta nik: "Horrek poz emango al lizuke?"

Eta berak: "Bai, horixe, eta handia eman ere."

Eta gaixoak eskatutakoa burugabekeria handia zela jakin arren, hark eskatutakoa egin nuen. Baina amaitutakoan, esan nion: "Kontuz, gero! Ez holakorik behin ere gehiago eskatu, ez baitizut egingo."

Eta gaixoak halako poza hartu zuen ezen handik egun gutxira barruko tristuratik sendatua aurkitu zen.




Bekatariak bihotz berritzen

Bazen Parisen emakume baten maitasun lizunez guztiz itsuturik zegoen gizon bat.


Nik inolaz ere bide zuzenera ezin ekarriz, egun batean hiritik kanpora itxaron nion, eta gizon hark bere bekaturako bidean ibai baten ondotik igaro behar zuela jakinik, ni ur hotzean sorbaldaraino sartu nintzen.

Eta gizon hura handik igarotzen ikusi nuenean, ni deiadarka hasi nintzaion: "Zoaz, zorigaitzoko hori zure bide makur horretatik! Ez al duzu Jainkoaren haserrea ikusten? Ni hemen egongo naiz Jainkoak zuretzat daukan zigorra baketu arte!"

Gizon hark, Jainkoaren zigorraz beldurturik, eta maitasunaz damuturik, galbidera zeraman bidea utzi zuen.



Baina zuri zer, Xabier,
mundu osoa irabazita ere
zeu galtzen bazara?



Jesusen Lagundia

AIkalan eta Salamankan ikasten ari nintzela, Jainkoaren zerbitzurako lan egiteko lagun bila ibili nintzen, baina fruitu hura ez zen umotu.

Pariseko unibertsitatean aurkitu nituen horretarako nire lehen lagunak:

Pierre Fabre, saboiarra, gizon otzan eta maitagarria. Suizako mendietan artzain izan ondoren, Parisera ikastera etorri zen, eta nirekin Sainte Barbe kolegioan jarri zen bizitzen. Gazte honen ezpainetako irribarre gozoak denak irabazten zituen. Biok laster lagun handi egin ginen.

Xabierko Frantzisko, nafarra. Gazte harrokoa. Ba omen zeuzkan bere zainetan Nafarroako erregeen odol tanto batzuk ere.

Asko kostatu zitzaidan gazte hau Jaunarentzat irabazten.

Ez dut aurkitu buztinik moldatzeko hain gorririk. Baina behin Jaunarentzat guztiz eman zenean, kristau fedea zabaltzen ez dut aurkitu honen antzeko besterik.

Simon Rodrigues, portugaldarra. Gazte alai eta odol bizikoa. Oso jainkozale eta ikasle ona. Sainte Barbe kolegiara ikastera etorri zenean, biok elkar ezagutu eta berehala lagun egin ginen.

Diego Lainez, Alfonso Salmeron eta Nikolas Bobadilla, hirurak gaztelakoak.


Lainez, gorputzez txiki, begi handi bizi, eta buruz oso azkarra.

Salmeron, Jakinduria zabaleko gizona.

Biblian eta hizkuntzetan trebea.

Bobadilla, gazte irekia, itxurakeria guztien etsai amorratua; noizean behin bere kasketaldiak bazituen ere.

Lagun hauek gogo jardunen bidez Jainkoaren zerbitzurako irabazi nituen.



Jesusen Lagunak garenez,
egoki da
Jesusen Lagundia izen hartzea

Zazpi lagunok talde bezala Jainkoaren zerbitzuan lan egiteko prest geunden, baina gizonak aldakorrak garenez, gure gogoia Jainkoaren aurrean agintzarien lokarriaz lotzea erabaki genuen.

Eta 1534 urtean, abuztuak hamabost, Andre Mari egunean, zazpi lagunok Parisen goizean goiz Montmartreko muinoan dagoen San Dionisio elizara joan ginen; eta han, Pedro Fabrek meza ematen zuen bitartean, Hosti Santuaren aurrean belaunikaturik, banan-banan gure agintzariak egin genituen:

Pobretasunean biziko ginen.


Kastitatea gordeko genuen, eta Jerusalemera joango ginen han Jainkolanetan bizitza emateko.

Baina hau ezina gertatuko balitz Aita Santuaren esanetara jartzeko.

Eta zein izen jarriko gure talde honi?

Eta nik aspalditik erabakita nuena proposatu nuen:


“Jesusek bildu eta Jesusen lagunak garenez, egoki litzateke Jesusen Lagundia izena hartzea.”



MONTMARTREN

(1534, abuztua)

Lagun hauek
gogo jardunen bidez
Jainkoaren zerbitzurako
irabazi nituen



Azpeitian

Parisen urdailetik gaixo gaizki aurkitzen nintzen. Hamabostero urdaileko mina izaten nuen, baita sukarra ere.

Eta gaitza beti-beti aurrerantz zihoan senda-biderik, asko probatu arren, aurkitu ezinik.

Eta sendagileek esan zuten osasunari laguntzeko ez zela aurkitzen beste biderik, jaioterriko haizeak baino besterik.

Eta horregatik neure lurraldera joateko nire lagunen iritsira makurtu nintzen.

Eta azkenean honetan geratu ginen: beraiek, unibertsitateko ikasketak amaitutakoan, lehorrez Veneziara joango zirela.

Eta ni, Azpeitian osasunez ondo aurkitzen nintzenean, Venezian denok elkartuko ginela, gero denok batera Jerusalemara joateko.

Eta lagunek erosi zidaten zaldi txiki baten gainean nire lurraldera joan nintzen, eta bidean osasunez askoz hobeto aurkitu nintzen.

Eta Gipuzkoara heldu nintzenean, betiko bi-dea utzi eta beste bakartiago bat hartu nuen.

Baina dirudienez Baionan ezagutua izan nintzen eta nire herrira heldu baino pixka bat lehenago, bi gizon aurkitu nituen eta hauek ekin eta ekin Loiolara nire anaiaren etxera eram nahi ninduten, baina ezin izan ninduten menderatu. Eta Madalenako ospitalean jarri nintzen bizitzen...

Eta etorri bezin laster haurrei doktrina irakastea erabaki nuen.

Nire anaia kontra jarri zen, inor ez zela etorriko entzutera esanez. Baina nik batekin aski nuela erantzun nion.

Eta doktrina irakasten hasi, eta jende asko etortzen zen entzutera, baita nire anaia bera ere.

Igande eta jaietan predikatu ere egiten nuen, eta oso urrutitik ere etortzen ziren niri entzutera.

Herrian oker zeuden gauza batzuk zuzentzen saiatu nintzen.

Bazen Gipuzkoan lege bat "joko itsuak" debekatzen zituena. Joko hauetan apostu gehiegiak egiten ziren, familia asko betiko zorretan hondaturik geratuz.

Nik debeku hori egitan debekatua izatea lortu nuen.

Bazen Azpeitian beste ohitura bat ere ez zuzena: Gipuzkoan neskatxak beti burutsik ibili ohi dira, eta ezkondu arte ez dute burua estaltzen.

Baina badira beste gizon batzuen ohe-lagun egiten direnak, eta hauei leialtasuna gordetzen dietenak, benetako emazte balira bezala.

Nik Gipuzkoako Batzarren Lehendakaria bultzatu nuen lege bat ematera: Inork, benetako emazte izan gabe, burua estaltzen bazuen, zigortua izan zedila.

Baziren herrian, sasoizko izanik ere, lanik egin gabe limosna eskatuz bizi zirenak. Beste agindu bat emanarazi nien agintarieri, alfer hauei inork ez laguntzeko, eta egiazko pobreak lagunduak izan zitezela.

Auzo eta familia arteko bakeak egiten ere aski lanik izan nuen.

Soraluzeko herrian familia batean aita-semeen artean eztabaida gogorrak sortu ziren.

Nik bieie etortzeko esan nien, eta biekin hizketan jardunez, bakeak egin zituzten, eta geroago gutun bat idatzi zidaten zein pozik bakean bizi ziren aditzera emanaz.

Barrenola baserriko senar-emazteak ez ziren ondo konpontzen, eta beste pertsona batzuk bakeak egiteko saiatu arren ez zuten ezer lortu. Nik etxeko jaunari ospitalera etortzeko dei egin nion. Etorri zen eta biok bakez eta egoki hitz eginez, hark ere bere emaztearekin bakeak egin zituen.

Eta sendatu nintzenean, Pariseko nire lagun-familiak ikustera eta arazo batzuk konpontzera joatea erabaki nuen.

Nire anaia haserre jarri zen dirurik gabe, limosna eskatuz eta oinez joan nahi nuelako. Azkenean biok erdi-bide honetara heldu ginen: Gipuzkoako mugaraino nire anaiarekin batera zaldiz joango nintzen...

Eta Gipuzkoako mugatik irten nintzenean, zaldia utzi, eta oinez, Nafarroako Obanos herri-rantz abiatu nintzen.

Herri hartan bizi zen ezkontuta Joan Xabierrekoa, Frantziskoren anaia.

Honi bere anaiaren gutun bat eman nion, Parisen bere aurka zabalduko gezurrak garbituz.

Eta Obanostik Lainezen herri Almanzan-era joan nintzen. Eta gero Siguentza eta Toledotik zehar Valentziara.

Bide hau dena oinez egin nuen.

Eta Valentziatik Italiara itsasoz nindoela, ekaitz-gogorra sortu zen, eta ontziaren lema galdurik, hiru aldiz heriotzaren zain egon ginen.

Eta hiltzeko nire kontzientzia prestatuz, ez nuen nire bekatuengatik kondenatzeko beldurrik, baina bai damu handia Jainkoak egindako graziak ondo aprobetxatu ez nituelako.

Genovara helduta, Boloniako bidea hartu nuen.

Eta bidea galdu nuen halako batean, ibai baten ertzetik ibiltzen hasi nintzen, eta ibaia han behean zegoen. Eta zenbat eta bidea aurrerago, orduan eta estuago egiten zen. Eta azkenean hain estua egiten zen non ezin nuen aurrera jarraitu, ezta atzera itzuli ere. Mugitzen nintzen bakoitzean ibaira eroriko nintzela iruditzen zitzaidan. Orduan lau-oinetz ibiltzen hasi nintzen.

Hau izan zen nik sekulan jasan dudana estualdirik gogorrena.

Boloniatik Veneziara joan nintzen eta hemen bihotz oneko gizon batek bere etxean lagun bezala hartu ninduen; eta Parisen erdi amaiturik utzi nituen eskolak osotzeko ezin izan nuen toki egokiagorik aurkitu.

Venezian Diego eta Esteban Egia anaiak, Lizarrako nafar euskaldunak, aurkitu nituen Jerusalem-dik erromes zetozela. Diego Alkalan ezagutu nuen Migel bere anaia inprimatzaileraren etxean.

Diegok Alkalan hango pobreentzat limosnak bihotz zabalez emanaz asko lagundu zidan. Nik bi anaia hauek gogo jardunak egitera gonbidatu nituen.

Geroago bi anaia hauek Erroman gure Lagundian hartuak izan ziren.

Bien bitartean Pariseko nire lagunak Venezia-rako bidean jarri ziren.

Orain ez ziren sei, bederatzi baizik: Klaudio Jay, Paskasio Broet eta Joan Kodure, hirurak frantziarrak, Pedro Fabreren bitartez Lagundira-ko irabaziak.

Nire lagun hauek bidean Alpes mendietako elurrak eta hotzak jasan behar izan zituzten, eta Suiza aldean protestante herrietan elizak erreta, komentuak hustuta, pena handiz, ikusi zituzten.

Baina azkenean 1537 urtearen hasieran Venezian denok bildu ginen.

Jerusalemera joateko urte erdi falta zenez, nire lagunak Venezia-ko ospitaletan banatu ziren. Nik neure estudioei ekin nien, amaitzeko gutxi falta bainuen.

Eta Jerusalemera joateko garaia etorri zenean, nire lagunak Erromara joan ziren Aita Santuaren baimena eta bedeinkapena eskatzera.

Ni Venezian geratu nintzen teologia ikasketak amaitu arte.

Erroman Paulo III. Aita Santuak nire lagunak berarekin bazkaltzera gonbidatu zituen, eta Jerusalemera joateko asmotan zeudela jakin zue-
nean diru laguntza ere eman zien.

Venezian apaiz ez ginenak meza emateko ordenatuak izan ginen. Behartsu tituloaz apaiz egi-
nak izan ginen, eta denok kastitate eta probeta-
sun agintzariak egin genituen.

Nik meza berria ematea atzeratu egin nuen, Jerusalemen emateko esperantzan.

Baina urte hartan Venezia-ko bakea hautsi zuen turkoekin, eta ez zen Jerusalemerako ontzirik prestatu.


Eta gu, Jerusalemera joateko itxaropena urrun-
tzen zela ikusirik, Veneto lurraldean banatu ginen, Parisen erabakitako epea igaro arte.

Eta hori ezin balitz Erromara joango ginen Aita Santuaren esanetara jartzera.

Niri Fabre eta Lainezekin Vizenzara joatea egokitu zitzaidan, eta han herritik aparte ermita zahar bat aurkitu genuen gerratean hondatua; ez zeukan ez aterik, ez leihorik, eta lasto pixka baten gainean egiten genuen lo.

Limosna eske herrira joaten ginen, baina hain eskasa zenez ekartzen genuena, ia ezin mantentzeraino iritsi ginen.


Eta honela berrogei egun igaro genituen otzit-
zari oso-osorik emanak.



ERROMAN

1538 urtean bildu ginen

Erroman
Italian sakabanaturik
bizi ginen lagunak



Erromara


Behin Veneziatik Erromara Fabre eta Lainez nire lagunekin nindoan, eta egun batean Erromara heldu baino 14 kilometro edo lehentxoago, La Storta zeritzan eliz txiki zahar batean otoitzean ari nintzela garbi ikusi nuen Jainko Aitak Kristo bere Semearekin jartzen ninduela.

Jainko Aitak nire bihotzean hitz hauek josten zizkidala iruditzen zitzaidan: "Ni izango naiz Erroman zuen aldeko."

Beste behin Kristo sorbaldan gurutzeaz, eta Aita betierekoa ondoan ikusten nituela iruditu zitzaidan, eta Honek bere Semeari esaten ziola:

“Nik nahi dut hau zure zerbitzaritzat hartzea”
eta halakotzat Jesusek hartzen ninduela, esanez:
“Nik nahi dut zuk guri zerbitzatzea.”

Eta otoitza amaitu nuenean Fabre eta Lainezi
esan nien: “Ene anaiok, Jainkoak gutaz zer nahi
duen ez dakit baina gauza batez ziur naiz: Jesu-
kristo gure aldeko dugula.”



Behartsuei laguntzen

1538 urtean bildu ginen Erroman Italiako hi-
rietan sakabanaturik bizi ginen lagunak.

Alokairuan hartutako etxe handi zahar, batean
bizi ginen. Urte hori lehortegatik oso urria izan
zen eta negua berrogei urte haietako hotzena.


Erroman janariak oso garesti saltzen ziren, eta
behartsuak gosez eta hotzez azkenetan aurki-
tzen ziren.

Gu, gosetuei jaten emateko, etxez-etxe abera-
tzen ateetan limosna eske hasi ginen.

Etxe zahar, handi, hartan su handi bat eginik
behartsuak berotzeko su-inguruan ipintzen geni-

tuen. Gero zopa bero edo beste zerbaiten bidez gosea aserik, otoitzak eta doktrina santua irakasten genien. Gauaz lasto gainean lo egiten zuten. Honela txandaka 300 pobre lagunduak izan ziren.

Honelako beste aterpe batzuk ere atondu genituen. Guztira negu hartan 1000 pobrek gure laguntza hartu ahal izan zuten.



Santa Marta

Emakume galdu asko omen zegoen garai hartan Italiako hirietan.

Erromako 50.000 bizilagunen artean ba omen ziren 3.000 "mari bideetako" esaten zitzaien holako emakumeak.

Bazen Erroman holako emakumeentzat eraikitako etxe berezi bat, baina gordeleku honetan lekaime izan nahi zutenak bakarrik hartzen zituzten.

Beste etxe bat behar zen arriskuan aurkitzen ziren neskatxak ezkondu arte zaintzeko.


Horretarako "Santa Marta" izeneko etxe bat jaso genuen.

Eraikitzen ari ginela jendeak esaten zidan: Horrelako lanak alferrikakoak dira. Holako emakumeek bekatuan gogorturik berriz ere oker bidera erraz jotzen dute.

Nik erantzuten nien:

“Nire neke eta lan guztiekin holako emakume batek gau bat soilik bekatu egin gabe igarotzea lortuko banu, aski litzateke niretzat.”

Santa Marta aterpe honek sei-zazpi urtetan 300 neskatxa zaindu zituen erortzeko bidetik.



Juduak

Behin Pedro Zarate bermeotarra nirekin bazkaltzen ari zela, nik esan nuen:

Nik Jainkoaren mesede handitzat hartuko nuke odolez judutarra banintz.

Bermeotarrak hori entzunik, lurrera txistua jaurtiki, eta harriturik “aitaren” eginez, esan zidan: “Nola judua?”


Eta nik erantzun nion: “Orain, Pedro Zarate Jauna, entzun iezadazu: Jesus gure Jaunaren eta Andre Mariaren ahaide odolez izatea, ez al da gauza handia?”

Erromako juduak 500 inguru izango ziren, eta neke handiak jasan behar izaten zituzten kristau izan nahi zutenek.

Alde batetik beste juduek "traidoretzat" jo-
tzen zituzten; eta bestetik betiko "kristau zaha-
rrak" ez ziren "kristau berriaz" fidatzen.

Nik Aita Santuagandik "Brebe" bat iritsi nuen
kristau egiten ziren juduei laguntzeko.


Eta gainera, bi etxe antolatu nituen bataioa
hartu nahi zuten juduak bertan hartzeko.



MEZA BERRIA

(1538ko abenduak 25)

Meza santua da
nire eguneroko poz
eta indar-emailea




Meza berria

Venezian apaiz ordenatua izan nintzenetik Meza Berria eman arte, Jerusalemen emateko esperantzan, urte eta erdi egon nintzen preparatzen, Andre Mariari beraren Seme Jesusekin jar nazala eskatzen.

Erromako "Andre Mari Nagusi" izeneko elizan eman nuen Meza Berria, han gordetzen baita Belengo askatxoa eta honen aurrean nahi nuen nire Meza Berria eman.

Harrezkero geroago eta errazago aurkitzen dut Jainkoa, eta meza ematean ikuskari asko izaten ditut.



Batzuetan Jainko Aita ikusten dut, besteetan Hirutasun Guztiz Santuaren hiru pertsonak, beste batzuetan Ama Birjina bitarteko bezala gure alde eskatzen.

Arazo larriak eskuartean ditudanean gertatzen zait hau batik bat. Eta orduan deboziozko negar malkoak isurtzen ditut begietako minez.


Eta honela Jainkoa zerbitzatzeko adorea hartzen dut.

Meza Santua da nire eguneroko poz eta indar emailea.



PAULO III

Aita Santuak:
"Jainkoaren eskua dago hemen."



Jesusen Lagundia

“F

ormula Instituti” edo Jesusen Lagundiko “Sortze Agiria” Gaspar Kontarini kardinalak aurkeztu zion Paulo III. Aita Santuari.

Honek irakurri zuenean, esan zuen: “Jainkoaren eskua da hemen”.

Baina Agiri hori aztertzerakoan ez zeuden denak ados. Guidiccioni kardinalak Elizan Ordena berri bat sortzerik ez zuen nahi.

Alderantziz, Ordena guztiak lau talde haue-tan bildu behar zirela uste zuen: beneditarrak, zistertarrak, frantziskotarrak eta domingotarrak. Eta orain beste Ordena bat gehiago?

Nik ate hau itxita aurkitu nuenean, Jainkoarengana jo nuen lehenengo eta gizonengana gero.


Aspaldiko nire esana da:

“Arazo larri bat azaltzen denean, lehenengo Jainkoarengana jo behar da dena Jainkoaren mende balego bezala; eta gero gizonengana, dena gizonen mende balego bezala.”

Jainkoarengana, asmo honen alde 3.000 meza eskainiz. Eta gizonengana gero, Jesusen Lagundiko lagun eta ongile “beso luzedunei” Aita Santuari Lagundi berriaren alde idazteko eskatuz.

Eta Paulo III.a Aita Santuak “Regimini militantis Ecclesiae” buldaren bitartez, “Jesusen Lagundi” Ordena berria onartu zuen.

1540 urteko irailak 7 egun zituen.



Jesusen Lagundiko Nagusi

Ordurarte ez genuen gure taldean betirako nagusirik. Astero txandaka gure arteko bat zen nagusi. Beharrezko zen betirako buruzagi bat aukeratzea.

Baina ordurako lagundikoak lurralde askotan zabalduak zeuden:

Xabier, Indian; Rodrigues, Portugalen; Fabre, Alemanian; Broet, Lainez, Jai eta Bobadilla Italiako hiri desberdinetan.

Italian zeudenak Erromara etorri eta bakoitzak bere botoa eman zuen. Xabierrek eta Rodriguesek Indiara eta Portugalera joan aurretik beren botoa emana utzi zuten.

Fabrek bere botoa Alemaniatik bidali zuen.

Botoa eman aurretik hiru egun egin genituen otoitzean.

Gero boto txartelak kutxatilan sartu, eta giltzaz itxi genuen.

Beste hiru egun otoitzean jardun ondoren, kutxatila ireki, eta boto guztiak (nirea izan ezik) nire alde izan ziren.


Nik nire botoa honela eman nuen: Jesus. Ni baztertuz, Buruzagi izateko botoa, botorik gehien duenaren alde ematen dut.

Baina nik ez nuen nire lagunen erabaki hori ontzat hartu, eta nire lagunei adierazi nien: Nik gehiago balio nuela obeditzeko, obeditua izateko baino.

Eta azken hitza nire konfessorearen eskuetan uztea erabaki genuen.

Eta honek erabaki zuen:

Nagusizat aukeratua izan nintzenez gero, kargu hori ez onartzea Espiritu Santuari kontra egitea izango zela.



Konstituzioak

Ez naiz ni lege zalea, baina Aita Santuak hala agintzen duenez, "Konstituzio" edo oinarrizko "Lege Nagusi" batzuk ematea egoki da Jesusen Lagundiarentzat ere.

Eta hauek dira:

-Jesus da gure eredu eta gidari bakarra.

-Jesusen Lagundiaren helburua ez da baka-
rrik bakoitzak bere arima salbatzea, baita besteei
beren arimak salbatzen laguntzea ere.

-Jesusen Lagundikoak beti eta nonahi Jainko-
aren aintzarik handienerako lan egin behar du,
fruiturik ugariena bildu daitekeen lanean.

-Jesulagunak gauza guztietan erdibide batera etorri behar du. Biziera ez latzegia osasuna galtzeraino. Ezta bigunegia ere arimaren adore eta kemena ahultzeraino.


-Jantzia, lurralde hartako apaizak janzten diren bezala jantziko dira.

-Jana, edana eta loa, lurralde hartako sendagileek osasunerako egokiena dela gomendatzen dutena izango da.

-Penitentzia, laztasun eta errezu luzerik ez; baina obedientziak izan behar du beti jesulagunen ezagu-biderik bereziena.

Betiko hiru agintzariez gain Aita Santuari obeditze agintzari berezia eskainiko zioten jesulagunek.

Eliz-talde edo Ordena berri honek "Jesusen Lagundia" izango du izena.



Trentoko kontzilioa

Elizaren Batzar Nagusi honek 1545etik 1563ra hiru ekitaldi izan zituen.

Lehen ekitaldira Paulo III. aita Santuak aginduta, Lainez, Salmeron eta Fabre joan ziren.


Bigarren ekitaldian Lainezen hitzaldiak izan ziren ospetsuenak.

Hirugarren ekitaldia hamar urte geroago bildu zen, eta ordurako Jesusen Lagundia beste leku askotan banaturik aurkitzen zen.

Lehen egunetan kontzilioan bildutakoek jesulagunen itxura apalari begiraturik, gutxitzat hartu zituzten, baina Lainezek lehen agerraldian

hitz egin zuenean, honen jakinduriaz batzarkideak txunditurik utzi zituen.

Beste ondorio on askoren artean kontzilio honek Jesusen Lagundiarentzat mesede pozgarri hau ekarri zuen: gure Lagundia hango gotzainen artean ezagutua izatea.




Lutero

Lutero-zaleekin nola moldatu jakiteko honelako aholkuak eman nizkien jesulagunei:

1. Otoitz egin.
Fedea Jainkoak guri doan emandako dohain hutsa da, eta eskuratzeko otoitz egin behar da.
2. Bizitza santua.
Jendeak hitz politei baino, bizitza zuzenari gehiago begiratzen dio.
3. Maitasuna.
Bidea galdu dutenak benetan maitatu, haien bihotzak aurretik irabazteko.

4. Doktrina argia.
Luteroren doktrina makurra gezurtatzen jardun baino, hobe da doktrina katolikoa argi eta garbi irakatsi.
5. Bihotzak garbitu.
Bihotz okerrak fedean ere okertzea dakar. Bihotz zuzenak fedea ere zuzendu egiten du.
6. Ikastetxeak eraiki.
Heziketa zuzenak gazteria berria sortuko du.



Pertsekuzioak

Erroman nintzela sekula jasan dudan jazarpen pertsekuziorik latzena eraman nuen.

Mihi gaiztoek hirian zabaldu zuten, ni Salamankan heretiko nintzelako espetxean egon nintzela, eta handik inkisizioaren beldurrez iheska Parisera eta Erromara etorri nintzela. Eta gogo jardunen bidez jendea engainatu egiten nuela...


Jendeak gezurra errazago sinesten du egia baino, eta Erromako gure lagunak gutxitzen hasi ziren, eta nire doktrinara ere ume gutxiago etortzen zen.

Eta auzia garbitzen hasi zenean, hau harrigarria! lehen gure kontra zeudenak, orain gure alde erabat agertu ziren.

Honela epaia ezkutatu, eta gainetik lurra botaz, dena ahaztuko zela uste zuten.

Baina nik ekin eta ekin epaileak behartu egin nituen idatziz epaia ematera, esanaz:

Gaitzak lurpean egonik ere iraun egiten duela, eta izen onaren arazoetan eguzkiaren argia behar zela. Eta Aita Santuarengana jo nuen arazoa guztiz garbitu arte.



Bihotzez bat

Munduko lau aldeetara bidali aurretik, aholku edo agindu hau ematen nien gure Lagundikoei:

“Gorputzez banaturik bizi bagara ere, bihotzez bat eginik bizi behar dugu.


Horretarako ahal duzuen eta sarrien, Erromara idatzi behar duzue zuen berri zehatzak jakin ditzagun.

Ahal balitz jakin nahi nuke zenbat arkakusok hozka egiten dien gauaz nire semeei...”

Hura zen nire poza Erromara munduko lau aldeetatik gutun piloa heltzen zenean.

Bi, hiru eta lau aldiz ere pozarren irakurtzen nituen, eta gero kopiak gure lagun eta ongileei bidaltzen nizkien, gure poza zabalagoa izan zedin.

Neketsua zen nire lana hainbeste gutunei erantzuteko, baina nire poza handiagoa nire semeen albisteak jakitean.



Azken urteak

1560. urtean, 60 urte nituela, osasunez hain gaizki aurkitzen nintzen, Lagundiko Buru izatea utzi nahi izan nuen, baina nire lagunek ez zidaten onartu.

Eta hilko nintzelakoan, heriotzean pentsatzen jartzen nintzenean, halako poz handia sentitzen nuen, naizen guzti hau negar malkotan urtzeraino.

Eta hau hain sarritan gertatzen zitzaidan, heriotzean pentsatzeari laga egin behar izaten nion, halako alaitasunik ez sentitzearren.

Eta udako oskarbietan zero zabala ikus zitekeen etxe gainera igotzen nintzen, eta han aulki apal batean eseririk, burutsik, negar malkoak be-

gietatik tantaka isuriz, askotan esaten nuen: "Bai dela itsusia lurra, zerura begiratzean!"

Baratzeko loretxo bat ikustea aski nuen Jainkoarengana bihotza jasotzeko, eta eskumakilaren muturraz loretxoak ukituz, esaten nien: "Badakit zer esan nahi didazuen."

Azken eguna

(1556. urteko uztailak 30 egun. Osteguna)

Nik Aita Polanko nire idazkariari dei egin eta esan nion:

"Zoaz Vatikanora eta Aita Santuari esaiozu, lur honetan bizitzeko ia itxaropenik gabe aurkitzen naizela, eta apal-apalik bere bedeinkapena eskatzen diodala."

Arratsaldeko 9etan (esaten digu Aita Polan-
kok) gure Aita Inaziok, bere betiko gutxi janean,
ondo afaldu zuen, eta afal ostean gurekin pixka
batean hizketan jardun zuen. Gero gu ezeren
kezkari gabe lotara joan ginen. Hala ere erizai-

na gaixoa zaintzen gelditu zen. Eta honek aitortu zuen gaixoak lehen gaualdi erdia artegatsu igaro zuela, baina gauerdia aldera baketu zela, eta tarteka "ene Jainkoa" esaten zuela.

Argi-urratsean, diosku erizainak, edari bizkorgarri bat eskaini nion, eta, "ez da horretarako ordua," esanaz ez zuen hartu.

Goizean goiz, jesulagunak esnatu zirenean Aita Inazio azkenetan aurkitu zuten.


Bare-bare azken arnasa eman zuen.

Euskal historiagile batek sakonki dio: "Hama sei gizaldiko fededun handiena ia bakarrik hil zen, inor konturatu gabe, eta elizakorik gabe."

Loiola bere azken orduan euskaldun jator bezala agertzen zaigu.

Euskaldunak gara mundu honetan teatro-zale gutxienak, eta Iñigok ere ez zien bere lagun jesusen Lagundikoei, azken aholkuak emanaz, azken-agur ikusgarririk egin nahi izan. Hil beti bakarrik hiltzen da.

1556. urteko uztailak 31 egun zituen, eta Loiolako Iñigok 65 urte.



Loiolako Iñigoren argazkia

L atiegi tar Bizente euskal idazleak honela margotzen digu Loiolako seme gazteenaren irudia:

"Euskal umore oneko gizona zen Iñigo, gure baserritarren antzeko patxadatsua.

Bertsolarien zorroztasun tanta bat ere bazue-na. Behin emandako hitzari balio handia ematen ziona..."

Euskalduna ez omen da apainkeria eta edergarri alferrikakoen zalea, egokitasunarena baizik.


Gehiegikeriak ez ditu maite.

Iñigo gogorra, latza, lehorra, bihotzeko sentimenduen itotzailea zela, diote batzuek; baina be-

re mendeko denak zoraturik bizi ziren bere irakaslearekin.

Iñigok irakatsi nahi zuen arimako bizitza ez da aszetika gogor, antzua; bihotz gogozko mistika ere bada.

Idazlari guztiek aho batez esaten digute, Iñigo Loiolatarra, bere pentsamoduz, bere lan egiteko tankeraz, aurren-aurretik, eta beste gauza guztien gainetik Euskalduna zela, eta Jesusen Lagundia ere euskaldun baten ekintza dela.



Jesusen lagundiari gainbegiratu bat

Iñigo hil zenean ia 1.000 jesulagun ziren munduan zabalduak.

Lekukoek aitortzen digute: inork bazkaltzen edo, aipatzen bazuen: hain urte gutxitan Jesusen Lagundia zenbat ugaritu zen, Inaziok lotsaturik bezala, aurpegia eskuekin estali egiten zuela, Jainkoari eskerrak ematen.

Iñigoren azken urteetan honela aurkitzen zen Jesusen Lagundia munduan hedaturik:

–Portugal. Nazio honetako 300 gaztek baino gehiagok eman zuten izena Jesusen Lagundian.

-India, Ozeania eta Japonia: Xabierko Frantziskok kristau federa ekarriak.

-Brasil: 140 jesulagun ari ziren lanean lurralde zabal haietan.

-Italia: 137 gazte sartu ziren Jesusen Lagundian.

-Etiopia: Nazio honetara joan ziren 56 jesulagunek ez zuten fruitu ugarririk lortu.


-Espainia: Zailtasun asko garaitu ondoren 293 ziren hemengo jesulagunak.

-Frantzia: Pariseko Unibertsitatea estimu handikoa zen jesulagunen artean, baina hiri hartako Parlamentuak eragozpen latzak jarri zituen Jesusen Lagundiak fruitu egiteko.


-Alemania: Lurralde honetan protestanteei aurre egiteko, Jesusen Lagundiak 15 ikastetxe eraiki zituen hango hiri nagusietan.

-Ingalaterra, Eskozia, Irlanda: Aita Broet eta Slameron bidali zituen Aita Santuak hango erlijio arazoak konpontzera, baina ez zuten arrakastarik izan.

-Txina: Xabierko Frantziskoren ametsa Txinara sartzea izan zen, baina amets hori ezin izan zuen gauzatu. Mateo Ricci italiarra izan zen 1583 urtean Txinara sartu ahal izango zen lehen jesulaguna.



Loiolako Iñigoren semeak
mundu guztira zabaldu ziren.



Jesusen lagundia eta Euskal Herria

Kalagorriko gotzain euskaldun Bernal Luko Jaunak Trentoko kontzilioan zegoela, gutun hau bidali zion Erromara Iñigori:

“Jauna, badakit zure semeen bitartez on asko egiten ari zarela alde guztietan.

Baina beste guztiei baino gehiago begiratu behar diezu zure herritar euskaldunei.

Hemen jaio zinen, eta hemengoei on egitera behartuago zaude.

Bidal itzazu, bada, zure semeren batzuk Euskal Herrira; baina euskaraz dakitenak behar di-


tugu, ez baitago bestela hemengoen bihotzetan doktrina onaren hazia ereiterik.

Irakasle euskaldunen behar handia dago, batez ere eliz-gizonen artean, euskaraz dakitenak oso gutxi baitira.”

Eta Iñigok Erromatik erantzun zion:

“Euskaldunen aingeruen lana oso egoki ari da berori egiten.

Eta egia da, gu ere euskaldunei beste edozeini baino gehiago laguntzera beharturik gaudela.”



Jesusen lagundia Euskal Herrian

Euskal Herrian Jesusen Lagundiak ikastetxe ugari eraiki zituen, eta denek doan edo gratis irakasten zuten.

–Oñati. Eskola honetan lehen letrak irakasten ziren: irakurri, idatzi eta matematikako lau erre-gela edo operazioak. Eskola hau gero Bergarara aldatu zen.

–Azkoitia. Lehen letrak.

–Bilbo. Eragozpen handiak gainditu ondoren, doan zirelako, ikastetxe bat eraiki zen, lehen letrak, logika, fisika eta metafisika irakasteko. Hiri

honetan emakumeentzat ere eskola bat sortu zuten.

-Tutera. Lehen letrak.

-Donostia. Hemen ere doan zirelako eragozpen handiak gainditu beharrak izan ziren.

-Lekeitio. Lehen letrak eta nautika.

-Urduña. Lehen letrak.

-Gasteiz. Lehen letrak.

-Baiona. Jantsenistak gogor aurka jarri zirelako ezin izan zen eskolarik ireki.

-Iruñea. Lehen letrak eta humanidadeak.

